

EKINAREN IRUZURRA

Urtero erosten du autoa Txemak. Beti auto zuria. Ohitura hori du.

Aurten, herritarrek adarra jo nahi diote Txemari eta ados jarri dira.

Herrira auto berriaz harro-harro heldu da Txema eta apaiza ikusi du lehendabizi:

-Aurten beltza erosi duzu! Zer dela eta?-galdetu dio apaizak irribarrez.

-Beltza?Ez horixe!Brometarako gogoa duzu, ala?

-Bada, nik beltza ikusten dut!

Tabernara joan da Txema eta esan dio adiskide batek:

-Beltza aurten, ezta?

-Beltz-beltza gainera!-beste lagun batek, ia barrez lehertzen.

-Zoratuta zaudete gaur guztiok, ala?Zuria erosi dut aurten ere, zuria!

Etxera sartu da Txema ziztuan, eta haren aurpegia ikusirik ikaratu egin da emaztea.

-Ez duzu ekarri auto berria, ala? Oraingoan ere zuria al da?

-Zuria edo beltza, hor dago. Joan eta ikusi!

1. Idatzi egia edo ala gezurra:

*Herrira heldu denean, Txemak medikua ikusi du lehendabizi. _____

*Apaizak Txemari esan dio autoa beltza dela. _____

*Txema adiskide batekin egon da tabernan. _____

*Adiskideek kotxea zuria dela esan diote. _____

*Emazteak barre egin dio Txemari. _____

2. Idatzi esanahi bereko hitza.

*Urte guztietan: urtero *Hil guztietan: _____

*Aste guztietan: _____ *Egun guztietan: _____